


Ekaitz-sistema konplexuak ikusi dituzte Saturnon



Sekuentzian, bi ekaitzen arteko eraginak, ordenagailuz eginiko simulazioaren arabera. Zenbakien bidez identifikatuta daude ekaitzak. ARG.: E. García-Melendo/M. Soria / Universitat Politècnica de Catalunya.

Saturnoko hainbat ekaitz polar aztertu ditu EHUko planetologiako lantaldeak, Agustín Sánchez Lavegak zuzenduta. Astronomo brasildar amateur batek ikusi zuen lehen aldiz, 2018ko martxoan, orban zuri distiratsu bat, ipar polotik gertu. Orbana hazi, eta 4.000 km-ko luzera hartu zuen. Bi hilabete geroago, beste orban bat agertu zen iparralderago, eta, ondoko hilabeteetan, beste bi.


Orbanak abiadura desberdinetan desplazatu ziren. Lehen orbana, 220 km/h-ko abiaduran mugitzen zen ekialderantz; bigarrena, aldiz, 20 km/h-ko abiaduran mendebalderantz. Ekaitzek topo egin eta perturbazio atmosferikoak sortu zituzten, eta perturbazio horiek ipar polo osora zabaldu ziren.

«Lehen aldiz ikusi dugu horrelako fenomeno bat: hainbat ekaitz latitude desberdinetan. Orain arte ekaitz txiki isolatuak bakarrik ikusi ditugu, edo Orban Zuri Handi deritzen ezohiko ekaitz erraldoiak», dio Sánchez Lavegak. Ez dakite zergatik irauten duten horrenbeste: «Lurrean, gisa horretako ekaitzek egun batzuek iraun dezakete asko jota; Saturnon, ordea, lehen orbana zazpi hilabetean baino gehiagoan egon zen aktibo».

Gizakiak eboluzioan galdutako muskuluak ikusi dituzte enbrioietan

Beste ugaztun batzuek bai, baina pertsonok ez ditugun muskulu batzuk hasieran giza enbrioietan garatu eta gero desagertu egiten direla aurkitu dute. Aurkikuntza horrek gorputz-adarren eboluzioa hobeto ezagutzen lagunduko du, baita gorputz-adarretako anomalia edo malformazio arraro batzuk ulertzen ere.

Enbrioien garapenean, eboluzioaren arrasto ugari aurki daitezke. Esaterako, izurde eta baleen enbrioiek atzeko gorputz-adarrak garatzen hasi eta gero atzera egiten dute, eta giza enbrioietan isats bestigial bat garatzen da, azkenean kokzix gisa gelditzen zaiguna. Baina iradoki izan da bestelako bestigioak ere egon zitezkeela: besteak beste, muskuluetan.



Hamar asteko fetu baten eskua. ARG.: Rui Diogo, Natalia Siomava and Yorick Gitton.

Ez da erraza halako egiturak ikustea, ordea. Orain, inoizko erresoluzio handieneko 3D irudiak erabiliz aztertu dituzte giza enbrio eta fetuen muskuluak, eta hainbat muskulu bestigial aurkitu dituzte. Enbrioietatik hasi eta hamaika asteko fetuetan ere aurkitu dituzte halako muskuluak. [Developmental dizkarian argitaratu dute lana.](#)